

BILBOKO LIBURU DENDA TXIKIAK

Ideiak erosi nahi?

Sartu barrura

Kate erraldoiek bereganatzen duten merkatuaren aldirietan bada bizitzarik; han ezarri direnak ez dira hondarretaz bizi. Bilboko saltoki handiek kutxatik pasatzen direnean baino ez diete balioa ematen liburuei, eurotan noski; baina literatura hortik harago doanez, harago ere ernatzen hasi dira bestelako liburu dendak.

Testua eta argazkiak:

ANDER EGILUZ

“IRAKURTZEAK EGITEN DU giza-kia oso, diskurtsoak egiten du prestu eta idazteak egiten du zehatz”. Sir Francis Baconek idatzitakoa da, orain dela mende batzuk. Hiztegi doiarekin idatzitako egia unibertsala izanda ere, entzungor egiten diogu jakituria handiko hitz horiei. Ez bada gizaki erdia izan gura dugula, behintzat.

Asko idazten da argitaratzen diren nobela, saiakera, aldizkari, egunkari eta blogetaz; zelan tratatzen diren, zein liburuk “ez duten merezi” argitaratzea... Baina gutxi irakurtzen da. Eta gehienok gauza berak irakurtzen ditugu. Juan Rulfok sormen krisia sufritu zuenean emazteari esan omen zion: “*Pedro Paramo* atera zait berriz”. Gauza bera idazten zuen beti, antza. Guk “*Pedro Páramo* irakurri dinat berriz” esan beharko genuke. Eta *Pedro Páramo* balitz, gaitzerdi.

Zaila da, hala ere, literaturaren homogeneizatzeko honetatik aldentzea. Liburu denda kate erraldoiek gero eta oxigeno gutxiago uzten diete denda txikiei, eta hauetariko askok horiek markatutako norabidea jarraitzea

GLTB –gay, lesbiana, transexual eta bisexual– kultura behar den tokian jarri nahi du Safo de Lesbos liburu dendak.



erabaki dute, horien ispilu bihurtuz; ajeak barne, *bestseller-itisa* kasu.

Baina badaude bestelako liburu denda batzuk. Txikiak, alternatiboak, espezializatuak, independenteak... Hamar gehi bat adjektibo FNAC, Elkar Megadenda eta Casa del Libroren –hiru aipatzearen– ereduak saihesten dituzten *beste* horiek izendatzeko. Javi Nevadok, Bilboko Anti-liburu dendako uga-zabak, ederto definitzen ditu liburu denda hauek, berea deskribatzen duenean: “Anti- alternatiboa da hemen saltzen ditugun liburu guztiak, banan-banan, geuk aukeratutakoak direlako, eta hori saltoki handietan ez da gertatzen. Geurea liburu denda espezializatua da gai zehatz bat jorratzen dugulako eta independenteak gara ez gaudelako inolako makro-proiekturen barnean. Eta txikia izatearena, ba tira, zaila da saltoki erraldoi batek kutsu alternatiboa mantentzea, ezta?”. Aspaldiko auzo-liburu denda txikien zarratzearekin batera, mota honetakoak ugaltzen hasi dira Bilbo inguruan, eta bazeudenak indartuta ikusten dute beren presentzia.

Desberdinak

Kultur topagune txikien modura funtzionatzen dute liburu



Best-seller-en aurrean long-seller liburuen aldeko hautua egiten dute Bilboko liburu denda alternatiboek: epe laburrera hainbeste saldu ez arren, denboraren eraginak hainbesteko kaltea egiten ez dieten liburuak, alegia. Anti-liburu dendako Javi Nevadok azaldu duenez, beraiek saltzen duten lan bakoitza ondo begiratuta eskuratu dute eta horri esker eskaintza interesgarria daukate apaletan.

denda hauek. Kulturak eta ideiek aske egiten dute hegan apalen artean; aske sartu eta aske atera kulturaren plaza hauek. Eta Bilboko alde zaharreko Gatazka Gunearen atea zabal-zabalik aurkitzeak defendatzen dituzten ideien metafora ematen du: “Gune publikoa gara, diskoak, liburuak, panfletoak, kamisetak... banatzen dituen”. Gari Zulueta da Gatazkako arduraduna, orain hamasei urte jaio eta hiru urte zendutako Likiniano liburu denda mitikoaren oinordekoa. Bilboko kontrakulturaren ikur argienetakoa da gune hau, baina “liburu denda” etiketak lar mugatzen du beren jardura: “Guk ez ditugu liburuak saltzen, ideiak baizik. Planteamendu ezkertiar anti-autoritarioaren kultura zabaldu gura dugu, euskarria edozein dela”, dio Zuluetak. Gune publikoaren izaera argi ikusten da inguruko zenbait kolektiboren materialak saltzen dituztenean. “Kolektiboek beste inon saldu ezin dutena hemen eskaintzeko aukera ematen diegu, lokala mantentzeko behar dugun apurra kobratuz bakarrik”.

Liburuak soilik ez, ideiak edo gai zehatz baten inguruan dagoen guztia saltzen duten liburu denda espezializatu dezente daude Bilbon; gero eta gehiago. Liburu ele-

“Ez ditugu liburuak saltzen, ideiak baizik”

GARI ZULUETA, GATAZKA GUNEA

“Argitaletxeek eskaintza bereziekin laguntzen diete makro guneek, eta horren aurka guk ezer gutxi egin dezakegu”

AGUEDA GAGO, DEUSTUKO LIBURUDENDA

mentu nagusia izanik, kulturaren aurpegi anitzak aldarrikatzen ditu Mari Varela de Lesbos liburu dendarekin. Gehiegitan “bentakako” kulturaren aldirietan kokatzen den GLTB –gay, lesbiana, transexual eta bisexual– kultura behar duen tokian jarri gura du: “Faltan botatzen zen GLTB produktuak lortzeko lekuren bat Bilbon. Liburuak, filmak eta abar lortzeko asko mugitu behar zinen, eta gehiengotik hemendik kanpo. Horregatik zabaldu genuen liburu denda. Zarata egin behar dugu, ezkutuan gaudelako”.

Liburu denda asko espezializatu izana argitaratzen den nobedade kantitateagatik dela uste du Zuluetak: “Oso iraupen laburrekoak dira liburu berri horietako asko. Horrela zaila da interesatzen zaizkizunak aurkitzen, eta horregatik sortzen dira liburu denda espezializatuak”. Iraupen labur eta luzeko liburuei buruz Javi Nevadok ere egin du hausnarketa: “Best-selleren aurrean long-sellerak aldarrikatzen ditugu. Ez dira hainbeste saltzen epe laburrera, baina ez dira hain arin iraungitzen ere. Liburu hauek aurkitzeko asko kuxkuxeatu behar dugu liburu dendok, baina horri esker eskaintzen ditugu hain liburu interesgarriak geuretan”.

Hala ere, espezializazioa ez da liburu denda txikien aukera bakarra, ezta alternatibo izateko bide ukalezina ere. Horren adibide da Deustuko Liburudenda. Betiko auzo-liburu dendaren profila dauka, baina ez da betikoa, orain bi urte zabalduakoa baizik. Zabaldetan dituzten liburuei begiratuta ez da liburu denda “komertzialetatik” lar desberdintzen; dendariak bereziki aukeratutako zenbait izenburu aurkitzen baditugu ere, ez baitie lepoa ematen azken orduko boomei. Zertan da alternatibo, orduan? “Liburu denda zabaldu genuenean bazeuden FNAC eta Elkar, baina ez gindoazen ildo horretatik” argitu du Agueda Gagok, liburu dendako arduradunak. “Geuretzat liburu dendak gune bizia, aktiboa eta kulturala behar zuen; topagune bat. Ez liburuak garbantzuak balira bezala saltzeko tokia”. Eta ametsa ederto gauzatu dute: hitzaldiak, ipuin kontalariak, narrazio tailerrak, ipuin lehiaketak eta abar luze bat antolatuta dituzte bi urte eskasetan.

“Jendeak mota honetako gauzen beharra dauka”, David Marotoren iritziz. Maroto, Teresa Freirereren bate-ra, LIB Litterae Mundi liburu dendaren jabea da. Kulturartekotasuna, migrazioa eta atzerriko hizkuntzetan espezializatutako Bilbo Zaharreko liburu denda honen ugazabak etorkizun ona aurreikusten du “saltoki handiek ez dituztelako irakurleak asebetetzen”.

Baieztapenok ikusita norbaitek pentsa lezake liburuak mordoka saltzen dituzten kateek ez dietela minik egiten liburu denda hauei, baina ez da horrela. Deustukoa moduko liburu denda orokorren diru sarrera garrantzitsua osatzen dute *best-sellere*k, baina saltoki erraldoiek merkatu kuota handia kentzen diete, eta ez beti bide garbietatik: "Askotan argitaletxeek eskaintza bereziki laguntzen diete makro gune, eta horren aurka guk ezer gutxi egin dezakegu..." azaldu du Gagok. Influentzia trafikoa bidegabea letren munduan.

Apalategietan dituzten liburuak saltzeko zailtasuna baino lehenagoko arazoa da liburuak eskuratzea. Denda txikiak diren neurrian, ez dituzte ehunka ale eskatzen liburu bakoitzetik, bizpahiru baizik. Baina askotan ez da nahikoa. Banatzaileek gutxiengo eskaria eskatzen dute gehienetan, eta negoziaketak ez dira errazak. Hainbeste zailtasunen aurrean, batasunean datza etorkizunak, antza.

Cliblik, elkartasunaren indarra


Bilboko liburu denda independenteen kolektiboa da Cliblik. Elkarrean helburu nagusia literatur munduaren ekintzak sustatzea eta bultzatzea da, eta gremioak duen aniztasuna ezagutzera ematea. Bost liburu dende osatzen dute Cliblik egun: LIB Litterae Mundi, Deustuko Liburudenda, Anti-, Safo de Lesbos eta Yorick. Ez dira asko, baina hazten ari dira. "Liburu denda gehiago barneratu gura ditugu" esplikatu du Javi Nevadok, "eta horretan gabiltza. Camara liburu denda, Algortako La Gusana, Joker... Saltoki interesgarri asko dago, baina oraindik ez dizkiegu guztiei proiektua aurkeztu".



Goian LIB Litterae Mundi dendako David Maroto eta Teresa Freire; behean berriz, Anti- dendako Javi Nevado.

Horrelako bazkun bat antolatzeko denbora behar da, eta honek lehen urtea bete berri du. Iazko Bilboko Liburu Azokaren ondorioz bildu ziren liburu dendok, "azokaren ereduak ez zigulako bat ere laguntzen" diosku Marotok. "Azoka horrek liburugintzari ez dio ezer ematen" gehitu du Nevadok ernegazio puntu bat aurpegian nabari zaiola, "ez du irakurzaletasuna sustatzen! Nobedade komertzialen erakusleho bihurtu da, bizpahiru idazle sonatu argazkian ateratzeko baino ez dituena gonbidatzen". Ez daude batere pozik Cliblikekoak Azokarekin, ez. Arenalean kokatutako *stand* gehienek argitaletxe eta banatzaile handien izenak erakusten dituzte. Non daude liburu dendak? "Gu, adibidez, *stand* berean gaude" azaldu du Varelak Cliblikeko kideez, Anti- eta Yorick salbu. "Gu ez gara itzuliko" aitortu du Anti-koak: "Azoka eredu berria beharrezkoa da; uneoro ekintzak antolatzen dituen, umeentzat erakargarria... Baina argitaletxe batzuen interesak daude atzetik eredu hau mantentzeko, *lobby* antzera. Ez dakit nik ba, gainbehera ez ote doan azoka hau...".

Kritikak ez du zertan suntsitzaileria izan behar, eraikitzailea izan daiteke, alternatibak sortzen dituen. Eta hori egin dute Cliblikekoek: Bilboko Azoka gustukoa izan ez, eta alternatiba sortu. Pasa den maiatzaren 20tik 25era arte Argitalpen Independenteei Buruzko Jardunaldiak antolatu zituzten, eta izandako arrakastak urtero ospatzeko gogoia eragin die "literatur mundua oso anitza delako". Eztabaida barik ez da hausnarketarik. Jakin-mina dutenei esker garatu da kultura, ez konformisteki esker; mugitzen direlako. Eta hemen mugimendua badago. ■



ONDARROA

Uztailaren 18tik 27ra arte Alamedan

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!